



Empar Pineda saria

LGTB ikuspegia gradu eta master amaierako lanetan barnea hartzearen Empar Pineda sariaren V. edizioaren deialdia - 2023/2024- epaimahaia bildu da.

Aurkezturiko 8 lanak aztertu ondoren, epaimahaiak Empar Pineda saria ondorengo lanei ematea erabaki du:

Euskaraz:

Feminitatearen berreraikuntza eta modulazioa: marika identitateetara hurbiltzeko bi gorputz-ibilbide

Gazteleraz:

Relaciones romántico-afectivas y violencias lgtibq+fóbicas en jóvenes del País Vasco

Deialdiko 3 puntua betetzeko:

"Epaimahaiek 2025eko otsailaren 17a baino lehen argitaratuko du deialdiaren emaitza <https://www.ehu.eus/eu/web/berdintasuna-direccionparalaigualdad/-/empar-pineda-v-edizioa> web orrian, honako hauen berri emanez: irabazlearen izena, tutorearen izena eta Saila, zein Gradu eta ikastegikoa den, eta saritutako lanaren edo lanen laburpena".



Euskaraz eginiko lanaren irabazlea:

Markel Laskurain Arrese-igor

Gizarte Antropologiako Gradua (Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia
Fakultatea)

Tutoreak: Mari Luz Esteban Galarza

***Feminitatearen berreraikuntza eta modulazioa: marika
identitateetara hurbiltzeko bi gorputz-ibilbide***

LABURPENEA

Laburpena: Sodomita, libertinoa, trabestia, maritxua, homosexuala, gay-a, queer-a... hainbat dira maskulinitatea traizionatzen duten gorputzak izendatzeko erabilitako hitzak, testuinguru historiko eta politikoaren arabera. Homofobiak forma ugari har ditzake, eta baita hari egiten zaion erresistentziak ere. Hala ere, lan honetan, marika identitateaz arituko naiz subjektu horiei erreparatzeko: aipaturiko sexu-genero disidentzia gorpuzten dugun eta indarkeria homofoboari aurre egiten diogun subjektuak, hain zuzen ere. Disziplinatutuean marjinaziora kondenatuta dagoen gorputza. Gorputz perbertsoa, gaixoa, ez produktiboa. Familia eraikitzen ez duena, femeninoa, desafiatzailea eta deserosoa. Marika identitate horren eraikuntza prozesuak behatzea da nire nahia, genero-praktikei eta -identitateei loturiko ekintza oro prozesu gorpuztu gisa ulertuta. Hain da konplexua identitatearen eraikuntza non ñabarduretan eta zehaztasunetan arakatzea ezinbestekoa den. Hori dela eta jaso ditut nire autoetnografia eta beste gorputz-ibilbide bat. Nahiz eta narrazio pertsonalak diren, bidaia kolektiboa izango da honako lan hau, zeinetan identitatearen elementu partekatuek zentraltasuna izango duten. Hala nola, gorputz-irudiak, desplazamenduak, desirak, laguntasun sareak, hizkuntzaren erabilerak...



Gaztelaniaz eginiko lanaren irabazlea:

Jon Ander Careaga Maerovich

Gizarte Langintzako Gradua (Lan Harreman eta Gizarte Langintza
Fakultatea)

Tutorea: Marina Sagastizabal Emili-Yus

Relaciones romántico-afectivas y violencias lgtibq+fóbicas en jóvenes del País Vasco

LABURPENA

El trabajo de investigación se centra en las relaciones romántico-afectivas y las violencias LGBTIQ+fóbicas entre jóvenes del País Vasco. Este tema es relevante para entender y sensibilizar sobre diferentes modelos de relaciones y las dificultades específicas que enfrenta el colectivo LGBTIQ+ debido a la falta de marco legal y la exposición a diversas violencias.

El objetivo principal de esta investigación es conocer y analizar las experiencias del colectivo LGBTIQ+, poniendo un énfasis particular en las relaciones y las violencias que enfrentan, con el fin de contribuir a la mejora de su salud mental y bienestar. Esta temática es significativa en un contexto europeo donde, según el proyecto RESIST y otras investigaciones, se ha puesto de manifiesto la desventaja y el riesgo que sufren las personas que se encuentran fuera de la cisheteronormatividad. Estas investigaciones también subrayan la necesidad de una mayor protección para la infancia y la especial vulnerabilidad de las identidades trans* (Resist, 2023).